



Maiatzak **1**
Eskubide eta askatasunak
berreskuratu ditzagun

Lanaren
Konfederakunde
Nagusia

@LKNCGT
www.cgt-lkn.org
rojyonegro.info



Maiatzak 1. Eskubide eta askatasunak berreskuratu ditzagun

Badator Maiatzaren Lehena, zeinetan Troikaren (€B, NDF eta EBZ) basailuak diren gobernu eta aliatuek, krisiaren aitzakipean iruzur itzela baino ez denaren bitartez, **langile klasea gure eskubide eta askatasunetaz gabetzen gaituen kiribil baten gatibu gaituzten.**

Ustelkeria politikoa, judiziala eta enpresariala bolo-bolo dabilen bitartean, diru-kutxa publikoen kontrako lapurreta, babesgabetasun egoeran dauden pertsonen berme judizialen falta eta elkarrengandik banatuta egon beharko liratezkeen botere publikoen delitu hitzartzea argi utziz, langileria kolokan eta etsita dago bitzta proiektu duinak garatzeko ezintasuna eta lan-baldintza prekarioak direla eta, **zeinetan pobrezia eta desberdinkeria gero eta gizarte geruza gehiagotara zabaltzen den.**

Langabeen kopurua onargaitza izaten jarraitzen du, emakume eta gazteen artean nagusiki, kontratu berri gehienak aldi baterako dira, soldata kaskar zein XIX. mendeko lan baldintzen **eta enpresari erreakzionarioek egoera honetan sufitzen dugunari aurre egiteko proposatzen duten irtenbide bakarra EEE-ak** (enplegu-erregulazioko espedienteak) dira.

"Erregimenaren gizarte eragileak" urte luze eta gero haien ezkutalekutik ateratzen saiatzen ari dira berriz ere errepresentatzen omen duten klaseari traizioa egiteko eta gobernuaren zein patronalarekin gure soldatak eta eskubideak gehiago murriztu ditzaten beste Gizarte Hitzarmen bat sinatzeko. Horretaz gain, jadanik prekarioak diren **Pentsio Publikoak** are gehiago murrizteko asmoz Toledoko Hitzarmena **berriz erldatzea daukate.**

"Instituzioetara jauzia" deituriko asmo hutsa, azkenik, **lilura mingarria** baino ez da izan, gobernatzen duenaren independentziaz borroka kalean dagoela argi utziz, hori baita kendu dizkiguten eskubide eta askatasunak berreskuratzeko, gizarte eraldaketa aurrera eramateko eta guztiona dena defendatzeko bide bakarra da, hau da, "Publikoa, Komuna" dena, guztiontzako zerbitzu publikoak oinarrizko **eskubide** gisa hartuz.

Maiatzaren 1. **honetan CGT-LKN sindikatuak pertsona,** erakunde eta gizarte kolektibo guztiak, **pertsona etorkinak, pentsionistak, ikasleak, emakumeak,** euren etxeetatik at eta lanetatik kaleratuak izan direnak, borrokatzeagatik zigortuak izan direnak... Laburbilduz, langile klaseari orokorrean deitzen diogu klase gisa dugun duintasunetik abiatuta manifestatzera, aldarrikatzeko eskubidea erabiltzera. Eskubide hori, hain zuzen, ukatu nahi digute, borrokatzen direnei zenbait sententzia zogortzaileen bitartez eta langileok enpresariaren erasoetatik defendatzeko deituriko Greben aurrean **"eskirolaje enpresariala" legalizatzen** duten Auzitegi Gorenaren sententzien bidez.

Hitz gutxitan, Maiatzak 1 honetan honako hau exijitzen dugu:

- **Azkenengo bi Lan Erreformak bertan behera uztea.**
- **Mozal legea bertan behera uztea eta borrokatzeagatik kartzelaratu, auzipetu, lanetik kaleratu eta isunak jasandakoentzako Gizarte Amnistia.**
- **Oinarrizko Errenta bizirauteko berme gisa.**
- **Zilegia ez den zorrari EZetz borobila.**
- **Zerbitzu Publikoak pertsonen ezinbesteko eskubide gisa.**
- **Lan egonkorrak baldintza duinetan.**

CGT-LKN Maiatzaren 1ean kalean egongo da, borrokan dauden gizarte mugimendu eta kolektiboekin batera edota bere jende eta indar propioekin, **aberastasunaren banaketa, elkartasuna, berdintasuna eta autogestioan oinarritu behar den gizarte ereduaren aldaketa aldarrikatzeko.**